



## GIZARTE HEZKUNTZA

### Amaierako profila

Gizarte Hezkuntzako Gradua bideratuta dago **pertsonen**, taldeen eta elkarteen **hezkuntza**, **gizarte** eta kultura arloko **parte hartzera** zuzendutako gizarte eta hezkuntzako **esku hartzeetan** trebe izango diren profesionalak prestatzera. Sen etiko, kritiko eta gizarte-eredu parte-hartzaile eta solidarioarekin konprometitutako profesionalak prestatu nahi dira, desberdintasun, kalteberatasun edo bazterketa egoeran dauden pertsonak lehenetsiko dituztenak.

Gizarte Hezkuntzako tituludunek gaitasun hauek izango dituzte:

- Gizarte eta hezkuntza ekintza eskura dagoen ezagutza zientifikoan eta profesionalean oinarritu eta kokatzeko gaitasuna.
- Zerbitzuen erabiltzaileei eta haien familiei laguntzeko eta bidelagun egiteko pertsonen arteko harremanak sortzeko eta mantentzeko gaitasuna.
- Giza taldeen funtzionamendua eta bilakaera antolatzeko, animatzeko eta errazteko gaitasuna.
- Partaidetza eta garapen komunitarioko prozesuak identifikatzeko eta babesteko gaitasuna, alderdi guztietan.
- Hainbat testuingurutan gizarte eta hezkuntza arloan esku hartzeko planak, programak, proiektuak eta jarduerak diseinatzeko gaitasuna.
- Gizarte eta hezkuntza zerbitzuak eta zentroak antolatzeko, kudeatzeko eta koordinatzeko gaitasuna, kalitate tekniko eta etikoko irizpideak kontuan hartuta.